



## USURBIL'GO EAJ-PNV

### PINUAREN GAITZARI AURRE EGITEKO NEURRIEN INGURUKO MOZIOA

#### AURREKARIAK

Azken sei hilabeteetan Gipuzkoako pinudien itxura erabat aldatu da.

Pinuek kolore gorrixka hartu dute eta igartzen ari dira. Bereziki Insignisak, baina baita ere Larizioak eta Douglasak.

Erasotzen ari den gaitza "Banda Marroia" bezela ezagutzen da, eta onddo batzuk eragiten dute.

Onddo hauek pinuen hostoak igartzen dituzte. Erasoa oso handia ez den kasuetan zuhaitzaren hazkuntza mugatzen du baina erasoa larria denean landarea hil egiten da.

Gaitza gurean aspalditik ezagutzen da, baina azken hilabeteetan zientifikoki oraindik ezagutzen ez diren arrazoiengatik bere HEDATZEA OSO AZKARRA izaten ari da eta ERASOKORTASUNA ere bai.

Eragin maila ezberdinarekin baina gaitza GIPUZKOA OSOAN dago hedatuta.

Ezer egin ezean, ondorengo 4-5 urteetan Gipuzkoako PINU GUZTIAK IGARTZEKO ARRISKUA dago.

1994-2030 Baso Plangintza egin zenean, Banda marroia bazegoen gure artean; are gehiago, 1940 urtetik gure artean egon da. Baina beste gaitz asko bezela, bere kaltea mugatua eta kontrolatua jotzen zen, berarekin bizi edo elkarbizi ziteken kalte haundiegirik sortu gabe.

Aurtengo udaberri eta udan ordea, Banda Marroia gaitzaren erasoa denontzako sorpresa izan da. Gaitzaren edo gaitz desberdinen mutazioak eraginda edo, edo hezetasun haundiko udaberri bat izateak edo beste ezagutzen ez ditugun arrazoiak bultzatuta, gaitza azkar eta modu erasokorrean hedatu da.

Eraso horren aurrean, EAEko lau erakundeek sektoreko eragile eta erakunde desberdinekin batera, gaitzaren portaera aztertu, diagnostikoa egin eta irtenbideak planteatzeko lan dinamika bat martxan jarri zen.

Lan horren emaitza izan da Pinuaren Gaitzari Aurre Egiteko Euskal Plana.

Plan honek beste hainbat ekintzen artean Pinuaren airezko tratamendua aurreikusten du, beti ere horretarako dagokion baimena lortzen bada. Tratamendua egiteko produktua gaur egun ere nekazaritzan erabiltzen dena da eta are gehiago, nekazaritza ekologikoan ere bai.

Garbi esan behar da, baimena lortzeko prozedurak berak bermatzen duela ingurugiroari eta pertsonen osasunari ez diotela kalterik egiten. Inolaz ere ez da baimenik gabeko tratamendurik egingo.

Beraz, airezko tratamenduarekin lortu nahi dena da, ingurugiroari eta pertsonen kalterik egin gabe, basojabeak jasaten ari diren galeraren aurrean laguntzea eta baso sektore osasuntsu bat izaten jarraitzea.

#### **HAU KONTUTAN IZANIK HONAKO HAU ONARTZEA PROPOSATZEN DEGU:**

- 1- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu Pinuaren Gaitzari Aurre Egiteko Euskal Planean jaso diren ekimen eta neurriak aurrera eramanez ditzala.
- 2- Bertan jasotzen diren ekintzak legediak ezartzen dituen baldintza eta mugak zintzo betez gauza ditzala, beti ere, gure herriko eta Gipuzkoa osoko herritarren osasuna bermatuz, eta horrekin batera, Lurraldeko ingurumen balioen eta bioaniztasunaren ezin besteko garrantzia kontutan hartuz.
- 3- Usurbilgo Udalak aintzat hartzen ditu herriko baso-jabeen kezka eta gaixotasunak sor dakizkiekeen galerak eta gaiarekin ardura zuzena duten erakundeek berauei laguntzeko ahaleginarekin jarrai dezatela eskatzen degu.
- 4- Gai honetan ardura zuzena duten erakundeek herritarrei lehen bait lehen informazio zuzena eskaini diezaietela eskatzen dugu, informazioa baita jendea lasaitzeko eta alarmak itzaltzeko erarik egokiena.
- 5- Usurbilgo Udalak basoaren eta pinuaren garrantzi sozioekonomikoa eta ingurugirokoa aintzat hartu, aitortu, balioan jarri eta herritarrei azaltzeko ahalegina egin dezala.
- 6.- Usurbilgo Udalak mozio honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari eman diezaiola.

Usurbilen 2019 ko urtarrilaren 25 ean.

